
UPV/EHU-N EUSKARAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTARAKO GIDA

(2008)

Egileak: **Marije Apodaka Ostaiakoetxea** (euskararen eta irudien erabilera sexista eta proposamen teorikoak) eta **Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea** (euskararen orrazketa)

AURKIBIDEA

SARRERA

- 1. GENERO BERDINTASUNERAKO ARAUDI LEGISLATIBOA**
- 2. HIZKUNTZA ETA IRUDIAK ERA EZ-SEXISTA ERABILTZEKO KONTZEPTU-PREMISAK**
- 3. HIZKUNTZA ETA IRUDIAK ARTEZ ERABILTZEKO ARGUDIOAK**
- 4. EUSKARAREN ETA IRUDIEN ERABILERA SEXISTAREN ELEMENTUAK, ARAZOAK ETA
IRTENBIDEAK**

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) Euskara eta Irudiak Era Ez-Sexistan Erabiltzeko Gida duzu esku artean. Gida honek sexismorik gabeko komunikazioa eta hizkuntza sustatu nahi du Unibertsitatean. Hurrengo ataletan erakutsiko dugu nola erabil daitekeen hizkuntza (euskara) emakumeen eta gizonen arteko ekitatea bultzatzeko, bai irakaste-eremuan, bai ikerketa-eremuan, baita administrazioan ere.

Hizkuntza, komunikatzeko eta harremanak izateko funtsezko bitartekoa izateaz gain, bizi gaituen eta bizi dugun errealitatea partekatzeko bidea da. UPV/EHU-k, akademi erakundea den aldetik, errealitate jakin bat aurkezten du haren izenean agertzen diren agiri eta lanetan. Hala adostutako eta finkatutako terminologian, nola Unibertsitatearen ordezkariak (irakasleek, ikasleek, ikerlariak, administrazio eta zerbitzuen langileak...) erabiltzen dituzten adierazpen informaletan, Unibertsitateak dena eta izan nahi duena ematen du aditzera.

Lan horri ekiteko bestela pentsatzen eta jarduten hasi behar dugu: jarduteko jaso ditugun ohitura asko eraldatzeko eta pentsaera finkatu asko iraultzeko prest egon behar dugu. Gaizki-eginetan ikasi beharko dugu, nor bere burua antzaldatzen ahalegindu beharko du, azken buruan, Unibertsitatean sexuaren kariatz inor bazter ez dezagun.

1. GENERO BERTINTASUNERAKO ARAUDI LEGISLATIBOA

EAEko Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako 4/2005 Legea	<i>III. Titulua, 3. Kapitulua "Hezkuntza". 2. Atala: "Unibertsitateko Hezkuntza". 33. Artikulua: "Xedapen orokorrak"</i> <i>2.- Orobat, jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko dute</i>
EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako IV. Plana	<i>Unibertsitatearen eremuan, emakumeen bertintasunezko presentzia lortzea estrategikoa da, bai administrazioaren eta boterearen eremuetan, bai irakaskuntzaren eta ikerketaren eremuetan, emakumeen jakinduria sortzea eta gizartean zabaltzea erraztearren.</i> <i>(...) Jakintza sortzeari dagokionez, genero-harremanen azterketan unibertsitateak funtsezko eginkizuna hartu behar du, desoreka-</i>

	egoerak sortu ta erreproduzitzen dituzten faktoreak identifikatuta, eta horiek ezabatzen laguntzeko formulak eta tresnak bilatuta (...)
14.1/1987 ebazpena, UNESCOren Biltzar Orokorrak eginiko bilkuran onetsitakoa	"... erakundearen dokumentu guztien erredakzioan, esplizituki edo inplizituki sexu bakar bat izendatzen duten terminoak ekiditeko politikak burutzea, ez bada emakumeen aldeko neurriek eskatzen dutelako".
UNESCOren 109 ebazpenak, 1990-1995.eko 25. bilkuran	emakumea aipatzen duen hiztegia erabiltzeko aholkatzen du, baita Estatu partaideen komunikazio guztietan, publikazioetan eta dokumentuetan erabil dadila ere
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1995eko martxoaren 22ko aginduan	ikasketen titulu- izena titulatuen izaera maskulino nahiz femeninoari egokitzen zaio..
UPV/EHUko estatuetan, 3. artikuluan	UPV/EHUK bere kide guztien berdintasuna bermatuko du, eta ez du inor diskriminatuko arrazoi hauengatik: jatorria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako baldintza pertsonal edo sozialen bat

Hala bada ere, berdintasuna bermatu nahi horren kontra, UPV/EHUko Estatuetan femeninoaren gainetik maskulinoari ematen zaion lehentasuna biziki deigarri suertatzen da. Aipatutako artikuluan honako hau irakur daiteke:

Estatutuen gaztelaniazko testuan aipatutako izen guztiak (gobernu organoak, ordezkariak, karguak, eginkizunak eta unibertsitateko kideak) eta genero maskulinoan agertzen diren gainerakoak femeninoan ere ulertuko dira, kasuan kasuko titularraren sexuaren arabera.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak. 3. Artikulua

Gida honek emakumeak eta gizonak beti izendatzearen eta agerikoak egitearen aldeko hautua egiten du, horretarako euskaraz zein erdaraz pareko tratamendua sustatuko da.

2. HIZKUNTZA ETA IRUDIAK ERA EZ-SEXISTA ERABILTZEKO KONTZERTU-PREMISAK

1. premisa: Hizkuntza pertsonen errealitateari buruz duten pertzepzioaren isla da

Hizkuntza eta errealitatearen arteko harremana bikoitza da: hiztunak errealitatea adierazteko darabil hizkuntza, baina aldi berean hizkuntzak errealitatearen ezagutza mugatzen du. Hizkuntzan pertsonen errealitate sozial eta pertsonala eraikitzeko, iraunarazteko eta transmititzeko zeinuak topatuko ditugu. Sozializazio-prozesuan hizkuntzak berebiziko betekizuna du: gauzak, harremanak, arauak eta pertsonak

sailkatzeko eta ulertzeko gogamen-egiturak antolatzen ditu, horrela pertsonak ingurua ulertu eta bere egin ahal du.

Zentzu horretan, hizkuntzaz izendatzen dugun eta transmititzen dugun errealitate hura, jaiotzako sexuak lehenengoz eta ondoren jendarteko generoak bereizita, sailkatuta eta hierarkizatuta dago. Sexuak bereizte- eta hierarkizatzeko-prozesuari deritzogu sexismoa. Geure egin ahala, pertsona arteko harremanak egituratzen dituen modu berean pentsatzen hasten gara, hau da, pertsonak etiketatuz, mederatze-mailetan ezarriz, hainbat eta hainbat ostenduz edota baztertuz.

Hezkuntza eta Zientzia alorrean, Espainiar Gobernuaren 1995eko Aginduak titulu akademikoetan tituludunaren sexua ager dadila agintzen du. Era berean, tituluak generikoen bidez edo forma femeninoetan izenda daitezela proposatzen du (1. liburukia, 9478 orr.). Helburura, bistan da, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzea da.

Hizkuntzak berebiziko garrantzia du pertsonen identitate sozialak eta jarrerak eratze-prozesuetan. Hori dela eta, maskulinoa eta femeninoa bereizi beharko dira orain arte maskulinoan izendatu ohi izan diren lanbide eta jarduerak izendatzeko orduan.

Halaber, sexu-bereizkeriari aurre egiteko eta emakumeak behar bezala aurkezteko ardurak espainiar jendartearen alderdi askori eta hezkuntza-agintariei honako hau pentsarazi die: hizkuntza egoki erabiltzearen aldeko politikarekin bat etorritik, akademi titulu ofizialak titulua lortzen duten pertsonen izaera maskulino edo femeninoa egokituta egon daitezela behar diren neurriak hartu behar direla.

Horregatik, eta taxuz erabaki ahal izateko, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Espainiar Erret Akademiarik eskatu zion egokitzapen hori gramatikalki zuzena zen ebatz zezan, eta hala izanez gero, zehatz zezan zein izan behar zuen titulu bakoitzari dagokion izendapen femeninoak. Erakunde Gorenak, auziaz emandako ebazpenean, tituluaren forma femeninoa erabiltzeari on deritzo, baina forma femeninoak orokorrak ez direla esan adierazten du eta forma batzuen bukaera dela eta, femeninoa zein maskulinoa adierazteko balio dutenez, forma horiek ez aldatzeko aholkatzen du.

Iturria: Boletín Oficial de España (BOE). 1995eko martxoaren 28, 1. liburukia 9477 orr.; egileek itzulita

Euskaraz ere sexua zehaztu nahi denean, lanbidearekin batera "emakume" edo "gizon" hitza agertu beharko litzateke era simetrikoan, adibidez: "emakume antropologoa" edo "gizon antropologoa". Askotan gertatzen da, soilik emakumeen kasuetan aipatzen dela, hau da, "antropologoa" gizona bada ere, "antropologo emakumea" esan behar bide dugu generoa zehaztu nahi izatera.

2. premisa: Sexismoa hizkuntzan androzentrikoa da, baztertua eta gainera egoera edo izen neutroei sexu biologikoa erantzen die.

Androzentrisismoak gizonak lehenesten eta onesten ditu. Androzentrisismoan gizonenak dira jendartearen kide osoak, haiek dira egitura eta antolakunde sozialetan aktore nagusiak edo bakarrak, eta haiek dira, halaber, legeak egiterakoan erreferentzia nagusiak. Horren guztiaren ondorioz, emakumeak ikerketa edo ikasketa edozein sailetan ostendurik edo gizonenak itzalpean geratzen dira.

Adibidez:

Androzentrisismoa: pertsonen eskubideak unibertsalitatearen garapen historikoa aurkeztzen denean, gutxitan agertzen da Olympe de Gouges (1748-1793) eta berak egindako ekarpena. Olympe de Gouges-ek bizitza bera galdu zuen frantziar iraultzak gizonenak libre eta hiritarrentzat lortutako eskubideek emakumeentzat ere izan behar zutela aldarrikatu eta eskatzeagatik.

Sexismoa sexuaren arabera inor mesprezatzera, gutxiestera, zapaltzera garamatzen jarrera da. Balio, gaitasun, arau edota jardura desberdinak egozten dizkie emakume eta gizonenak eta hauei emandakoak gorensten eta balioesten ditu.

Sexismo linguistikoa eta *sexismo soziala* bereizi ahal ditugu. Aurrena hitzak edo esamoldeak direla eta, baztertua diren mezuei dagokie. Azkena, berriz, esateko moduari baino areago, esaten denari dagokio. Begoña Muruagaren ustez (2003), hizkuntzak ezin dira sexistak izan, hiztunok hitz egiteko dugun modua izan daiteke sexista: hizkuntzaren erabilera. Eta Álvaro García Messeguer-ek (2001) azaldu duen bezala, arazoa aski argitzen dugu sexismoa hizkuntza-sistemari egotzi beharrean, hizketan ari direnei egozten badiegu. Hiztun batek sexismoa adieraz diezaiolke inori mezua jasotzen duenak ere horrela ulertzen badu adierazitakoa; alderantziz ere gerta daiteke, inork sexismo gabeko adierazpen bat egin eta hari beste inork sexismo-karga topatu ahal dio.

Adibidez:

Hizkuntza-sexismoa: "Unibertsitateko ikasturte-hasierako ospakizunera irakasleak eta haien emazteak etorri ziren" esaldiak irakasle guztiak gizonenak direla ematen du aditzera (nekez pentsatuko dugu irakasle emakume homosexualenak erreferentzia egin nahi izan diela), baina erraza da hori zuzentzea "ezkontidea" erabiliz. Bestela ere honela eman genezake esaldi hura: "Unibertsitateko ikasturte-hasierako ospakizunera irakasleak

eta haien bikotekideak/bizilagunak etorri ziren". Kasu horretan, inor ezkondu barik egonda ere, ez dugu ahaztuko.

Sexismo sozialik gabeko hizkuntza-sexismoa: "Unibertsitateko ikasturte-hasierako ospakizunera irakasle asko eta emakume asko etorri ziren" (guztiak, emakumeak barne, irakasleak ziren) esaldiak egoera ez-sexista baten berri ematen badu ere, esaldi sexista da, honela behar baitzuen: "Unibertsitateko ikasturte-hasierako ospakizunera irakasle asko etorri ziren".

Hizkuntza-sexismorik gabeko sexismo soziala: "Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Batzordean ehuneko 27 dira emakumezkoak" ¹. Datu honek ondo erakusten du Unibertsitatean dirauen sexismoa, eta horrela adieraztea ez da berez hizkuntza-sexismoa, ez baitu emakumerik ostentzen.

Informatika karreraren izena aldatu eta *Informatika Ingeniaritza* izendatzea ez da berez ez-sexista, ez-androzentrikoa, baina genero-muga izan liteke emakumeak matrikulatzen ez badira ingeniaritza gizonezkoen lanbidetzat jotzen dutelako.

Izen neutroak sexuari lotzeak lanbideak, egoerak edo osagai bizigabeak sexuen arabera sailkatzea behartzen gaitu eta maskulinoa balioestera eta femeninoa gutxiestera. Egia da euskarak ez daukala genero gramatikalik, baina horrek ez du esan nahi genero bereizketarik ez denik. Erdaren eraginaren ondorioz, bi erabilera desegoki aipatu behar dira: lehena, kalkoetan eta maileguetan gertatzen dena, hau da, genero maskulinoa orokorra da adjektiboetan eta izenetan (aitak, semeak, erregeak, filosofo, boluntario, ...); eta bigarrena, izen neutroak askotan sexu batekin identifikatzen ditugu (erizaina emakume eta politikaria gizon). Kulturak maskulinoaren eta femeninoaren arketipoak transmititzen ditu eta horiek hizkuntzan islatzen dira (adibidez, gizontasuna edo ematasuna).

Bestaldetik, euskarak badu aditz-formetan sexu-marka adierazten duen tratamendu bat, *hika* hain zuzen. Ezaguna denez, tratamendu berezi hau ondo erabiltzeko solaskidearen estatusa zein den hartu behar da kontuan, eta pareko edo beheko estatusekoei egin ohi zaie *hika*. Aditzetan, gainera, sexu-bereizketa agertzen da. Baina, bistan da, nekez erabiliko da tratamendu hau buruz buruko elkarrizketetatik kanpo, ez da egokia, beraz, hedabideetan publiko zabalari hitz egiteko. Publiko zabal hori nola murriztu eta zehazten dugun ageri baita tratamendu hau erabiltzen den bakoitzean.

Dena den, askotan salatu egin da erabilera desegokia; hala, Bea Medranok (2006)

¹ Berdintasunerako Zuzendaritzako Zuzendariak, Murtze Larrañagak, emandako datuek (El País, 11-12-2001) Unibertsitatean dagoen sexismo soziala nolakoa den erakusten digute: zerbitzu- eta administrazio-langiletan ehuneko 63 emakumeak dira, eta gainera beheko mailetan elkartzen dira gehien; katedradunetan, berriz, emakumeak ehuneko 20 baino ez dira eta karrera teknikoetako ikasleetan ehuneko 31; osasun-zientzietan, aldiz, ehuneko hori 82ra igotzen da; Zuzendaritza Batzordean ehuneko 27 dira emakumeak. 1970etik Unibertsitateak 55 *Honoris Causa* Doktorego eman baditu ere, haietako bi baino ez dira izan emakumeentzat.

Bilboko Udalaren kanpaina batean erabilitako lelo bat, "emaiok horiari", jarri zigun adibide: herritar guztiei zuzenduta dagoen kanpaina batean ezin da halakorik erabili, emakumeak ez baitira halako esaldi baten hartzaile.

Aipatu bezala, inguruko erdaren eragina handia izan da euskararen baitan. Hizkuntza horietan izenek badute genero gramatikala, askotan emea / arra edo emakumea / gizona aurkarizetatik urrun dauden errealitateak izendatzeko badira ere. Euskarak hainbat hitz edo kontzeptu bereganatu du eta haiekin sexu-bereizketa hori ere bai. Bestetan, euskaldunek beraien ezarri diete sexu-bereizketa berez halakorik ez daukaten gauzei edo gertakariei. Azken finean, kultura askotan mundua eta mundukoak generotan sailkatu dira.

Adibidez

Erdaraz femeninoak direlako, euskaraz horrela pentsatu ohi ditugunaK. Unibertsitatea, fakultatea, administrazioa

Berdina, maskulinoa: klaustroa, jantoki, campus...²

3. premisa: genero gramatikala eta generoa kategoria analitiko bezala ez da gauza bera

Euskararen erabilera aztertzeke, genero aldagaia kontuan hartu behar da, Genero Teoriak proposatutako kategoria berria dugu hori. Kultura eta politika arloetan feminismoak egindako ekarpenetako bat da Teoria hori. Labor esan, teoriak gure adimen- eta jendarte-egituretan dauden alderdi edo ezaugarri sexistak aztertzeke baliabideak eskaintzen dizkigu.

Gayle Rubin (1975)³ izan zen sexu-genero sistema kontzeptua erabili zuen lehenengoa, horren bidez adierazi nahi izan zuen zein zen jendarte batek gizon eta emakumeei sexu biologikoaren arabera egozten dizkien ezaugarrien sistema.

Sexu-sailkapen tradizionalak –emea eta harra- sexu-klaseei egotzitako ezaugarriak ezartzen ditu, sailkapen zurruna eta itxia da: halakoa jaio eta halakoa bizi, ez dago

² Euskara beti da ama, Euskal Herria edo Lurra ere bai. Haiek paradigma kultural zahar baten zantzuak izan daitezke (eguzkia, ilargia edo andrazkoak ei ziren), baina inguru kultural zabal baten eraginak dirudite (mendebaldeko kulturaren...)

³ 1975ean Gayle Rubin-ek *The Traffic in Women: Notes on the Political Economy of Sex* (Emakume trafikoa: sexu ekonomia politikoa buruzko oharra) izeneko artikulua argitaratu zuen, han emakumeen zapalkuntza eraikuntza soziokulturala dela zioen, eta ikuspuntu horri eusteko sexu-genero sistema zeritzon kategoria asmatu zuen.

aldatzerik, ez denboran barna, ez kulturetan zehar. Hala ere, badira bi sexu horien aurkaritza eraikuntza soziala dela uste dutenak ere ⁴. Sexu-izaera anitz ditu jendeak (hermafroditak, sexuartekoak...), halako aniztasuna ulertu ahal izateko kaltegarria da gure espeziaren *sexutasuna* bi mutur bateraezinetara mugatzen duen irizpena. Horren ordez hobe dugu *sexutasun* hori bi mutur horien arteko urrats guztietara zabalitzen duen iritzia; mutur horiek, gainera, hurbiltzen dituen iritzia.

Generoak, gehien bat gizon eta emakumeen artean topatzen ditugun diferentziak ikuspuntu psikiko eta soziokultura batetik erakusten dizkigu. Hortaz, bi kategoria bateraezin eta osagarri –maskulino versus femenino- erabiliz jendartea arautzen duen errealitate psikosozial konplexu bati dagokio generoa. Generoa ez da berdina kultura guztietan, izan ere, garai eta inguru bakoitzean sexu biei egotzitako portaera sozialak ez dira berberak. Jendartean sortutako kategorizazio bat denez, ikasi egin behar da eta, ondorioz, badugu kategorizazio hori aldatzea.

Labur bilduz, genero-analisiak gizonen eta emakumeen jardunetan eta eginkizunetan hiru alderdi hauek jartzen ditu agerian: genero arteko parekotasunik eta orekarik eza, emakume guztiak eta gizon guztiak haien artean ere ez direla berdinak eta genero tradizionalak gainditzen dituzten talde sozialak daudela.

Aipatu dugun kategorizazioak hizkuntzan duen eragina ikertu dutenek idatzizko edo irudizko komunikazioan nola islatu den aztertzeari eta hizkuntzak berak zer nolako aterabideak eskaintzen dituen arakatzeari ekin diote gehien bat. Zehazkiago, bi multzotara bil daitezke eragin horiek: kategorizazioak emakumeak isilarazi ditu (ostendu, ikusezin bihurtu edo baztertu egin ditu) eta mesprezatu edo gutxietsi ditu (menpeko, umil eta haur bilakatu ditu).

4. premisa: Irudiak era ez-sexistan erabil daitezke.

Maiz, irudien bidez sexismoa, bortxakeria eta bazterkeria inozoki zabalitzen ditugu. Ondorioz, genero estereotipoak zabaldu, askotasuna baztertu eta portaera oldarkorrak naturalizatzen dituzten mezuak hedatzen ditugu. Horrekin guztiarekin, sistema patriarkalaren balioak indartu eta transmititu egiten dira. Irudietan sexismoari loturik gehien agertzen diren alderdiak honako hauek dira:

- ✓ Sexua dela kausa, argi eta garbi bereizitako ereduak transmititzea.

⁴ Ikusi: <http://www.hartza.com/QUEER.html>, queer eta transgenero (genero artekotasunaren) gaiari buruzko artikulua, jardunaldi eta iritzi asko eskura.

- ✓ Genero-rol eta estereotipoak indartzea, gizon- eta emakume-estereotipo baztertzailerak oinarri dituen jendarte-eredua finkatzea: irudi onak eta txarrak, irabazleak eta galtzaileak, ausartak eta koldarrak, ederrak eta itsusiak, sendoak eta ahulak...
- ✓ Emakumeak hartu eta erabiltzeko objektu gisa aurkeztea.
- ✓ Emakumeak "txikiak" direla sinestaraztea.
- ✓ Emakumeak mezu eta albiste negatiboen bidez biktima bihurtu: tratu txarrak, hilketak...
- ✓ Informazio orokorreko berrietan emakumeek protagonismorik ez izatea (haien kontrako bortxakerien kasuetan izan ezik, baina horietan ere emakumea biktima pasiboa da).
- ✓ Emakume-gorputza desio-objektu hutsa dela sustatzea.

Izaera FEMENINOaren ezaugarriak	Izan ditzaketen ondorioak
Gorputz, edertasun eta gaztetasun eredu jakin batekiko tema izugarria du oinarri	Ezarrirako kanonefik (ile horia, argala, altua, begi urdina...) oso urrun dagoelako, nor bere gorputza gorrotatzea.
Luxu eta apainduria handiko giro batean	Norberaren balioa erakusteko, aberastasun kanpo-erakusle nahikorik ez izateak auto-estimua gutxitu dezake. Emakumeak lotsati eta herabe senti daitezke modako jantziak ez dituztenean.
Gizonen mirespena eta desioa erakartzeko bezain ederrak	Gizonak alde egiten badu, emakumeak bere errua dela senti dezake.
Akatsik gabeko ama ona, zerbitzaria, arduratsua, hauraren mirabea; aitaren irudia gutxienetan agertzen da	Emazte- eta ama-rola eskuratzen ez duen emakumeak frustrazioa eta gutxiespena jasan dezake.
Bere desioa ukatzen duen emakumea, bizitza autonomo baten eragile izan daitekeen desioa, hain zuzen	Ez dago lan-harremanen mundu konplexuan foki egokirik emakumeentzat.

Izaera MASKULINOaren ezaugarriak	Izan ditzaketen ondorioak
Lehiakorra, oldarkorra, autoritarioa, bai bere bai besteen sentimenduei gor eta itsu. Heroia	Rol honen eskakizunak ondo betetzeak frustrazioa eta gatazkak pizten ditu

izan, dena kontrolatu eta menderatu nahi izango du. Arrakasta lortzeari loturik.	norberarengan. Nonbait, eraman ezina da. Frustrazio-sortzaile handia izanik, porrotari indarrez erantzutea eragiten dezake.
--	---

3. HIZKUNTZA ETA IRUDIAK ARTEZ ERABILTZEKO ARGUDIOAK

Komunikazioan izaten diren erabilera sexistak aztertzeko eta aldatzeko proposamenek ez dute beti mundu guztiaren onspena jasotzen. Alderantziz, askotan kontrako iritziak eta portaerak sortzen dituzte. Aurkako erantzun horiek "argudio" asko izan ohi dute lagun. Argudio horiei aurre nola egin diezaiekegun azalduko dugu, azken buruan, hitzak eta irudiak sexismorik gabe erabili beharraz ohartarazi nahi diogu irakurleari.

Aurkako argudioak	Aldeko erantzunak
Hizkuntzaren ekonomia: "Proposamen horiek guztiek luzatu egiten dute diskurtsoa"	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Izendatu nahi duguna mezuan jarriko dugu. Ez da mezutik kanpo, adierazi nahi dugun ezer geratuko. ✓ Badira alternatibak kontzeptu bakarretara biltzeko errealitatearen alderdi guztiak. ✓ "Emakumeei buruz egin nahi dugu berba? Izenda ditzagun, beraz!"
Korapilatsua da: "Emakumeak eta gizonak etengabe aipatzea, nahaspilatsua da"	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gomendioei ondo jarraituz, komunikazioa eraginkorragoa eta argiagoa izango dela ziurta dezakegu. ✓ Komunikazioan mezu bakoitzetik behar besteko aldaerak eratzeko bezainbeste adierazpide dugu.
Hizkuntza halako bi egitea: "Bi aldiz esan behar dugu esan nahi duguna, argi dago <i>gizona</i> hitzak emakumea ere esan nahi duela"	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ez dugu ezer birritan esaten, emakumeak eta gizonak aipatzea ez da errealitate bakar eta berari buruz birritan aritzea. ✓ Emakumeak eta gizonak aurkeztuz, jendartearen errealitateari eusten diogu, izan ere, emakumeak erdia baino gehiago dira. Justizia soziala dugu auzi honen funtsean. ✓ Horrez gain, emakume eta gizonen jardunak eta ekarpenak agerikoak egiten ditugu.
Ohikoari eutsi: " <i>Beti esan da horrela</i> "	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hizkuntza etengabe aldatzen ari den kultura-gertakaria da. Pertsonok ere nahita

	<p>eta berariaz, asmoz eta jakitez aldatu ahal dugu hizkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Estereotipoak eta aurre-irizkiak zokoratu eta iraganaldiko bidegabekeriak arteztu ahal ditugu. ✓ Emakume eta gizonen gaineko aurre-irizkiak ezabatu eta lanaren sexu-banaketa gaingitu ahal dugu.
<p>Lotsa eragiten du: <i>"Emakumeak eta gizonak esaten hasi eta barre egingo dizute"</i></p>	<p>Iseka eginez, erabilera ez-sexitari eutsi nahi diona barreari utzi nahi dutenean, argi erabilera horren bidez honako helburu hauek lor ditzakegula:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Emakumeen egoera soziala hobetuko dugu. ✓ Berdintasun alorreko legeak eta erakundeen konpromisoak betetzen ditugula. ✓ Izateko eta izendatua izateko eskubidea aplikatzen dugula.
<p>Lana handitzen du: <i>"Azturak aldatu, onetsitako dokumentuak emendatu ..."</i></p>	<p>Proposatutako aldaketa ezarian gauzatuko da, eta honen aldeko aldaketa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Sexua kontuan hartu barik, pertsona guztiei aukera berdinak eskaintzearen aldekoa. ✓ Haur guztien identitatea egoki eraikitzeko eta pertsona guztien garapena osoki betetzeko eredu berriak eskaintzearen aldekoa.
<p>Berriro asmatu eta berriro ohitu behar: <i>"Txarto jotzen du"</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun arrotz diren esamoldeak, hitzak edo irudiak egun batean erabat arrunt, arauzko eta ohikoak izango dira. Komunikazio-kode guztiek duten berezko dinamika da hau, erabiliz edozein adierazpide arrunt bilakatzen baita.
<p>Neologismoak beharko ditugu: <i>"Beti ez dugu hitz edo esamolde egokia izango"</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hitz berriak sortzeko bide asko dugu. Erdaraz, bistan da, forma maskulino baten femeninoa erraz sor daitekeen, euskaraz erabilera sexistari aurre egiteko forma bakarra "androgino" bihurtu behar dugu: <i>pilotu</i> hitzak, adibidez, emakume eta gizona adierazteko denez, ez dugu

pentsatu behar *hegazkin-pilotua* gizona denik.

4. EUSKARAREN ETA IRUDIEN ERABILERA SEXISTAREN ELEMENTUAK, ARAZOAK ETA IRTENBIDEAK

Atal honetan azalduko dugu nola sortzen dugun, hizkuntza eta irudiak erabiliz, sexismoa komunikazioan. Hizkuntzari dagokionez, bi multzotan sailkatu ohi dira erabilera horren osagaiak: sistemarenak eta lexikoarenak. Lehenengoak hizkuntzaren egiturak dira eta esaldi koherente eta zentzudunak sortzen laguntzen dute. Beraz, hizkuntza-sistema osatzen dute. Elementu horiek oso finkoak dira eta nekez aldatzen dira, gure pentsamoldea erreferentzi eskema konkretuetan sortzen delako. Lexikoaren elementuak, bistan da, berbak eta haien esanahiak dira, hizkuntzaren alde bizia nonbait, aldakorra eta iragankorra.

4.1. Hizkuntzaren egitura-elementuak

1	Tipologia	Bikote-izenak (“dvandvak”)
	Azalpena	Euskarazko bikote-izenak, kalkoen eraginez, galtzen dira. Gizonezkoa izendatzen duen izenak sintagma osoa ordezkatzeko duenez emakumea ostendu eta ahaztu egiten da.
	Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Aitak, semeak, erregeak, lehengusuak,...</i> ✓ <i>Non daude zure aitak?</i>
	Zergatia	Androzentrismoa.
	Ondorioak	Emakumeak diskurtsoetik eta errealitateetik desagertzea. Emakumeen azpi-identitatea bultzatzen da eta gizonen gain-identitatea.
	Irtenbidea	Forma jatorrak eta hitz-elkarteak erabili.
	Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Jaun-andreak, andre-gizonak, neba-arrebak, gurasoak, aita-amak, errege-erreginak, seme-alabak, lehengusu-lehengusinak, ...</i> ✓ <i>Non daude zure gurasoak?</i>

2	Tipologia	Hitanoaren erabilera desagokia
	Azalpena	Zenbaitetan hitanoa desagoki erabiltzen da, emakumea isilpean utziz. Solaskideak gizonak baino ez direla pentsatzearen ondorio zuzena da.
	Adibidea	Batzar batean, emakumeak eta gizonak daudelarik, maskulino forma erabili bakarrik: <i>Azterketa egin ezak.</i>
	Zergatia	Androzentrismoa.

Ondorioak	Emakumearen presentzia isilpean geratzea. Emakumeen protagonismoa galtzea.
Irtenbidea	Hitanoan oso markatuta dago sexua. Hika jardutean argi izan behar dugu gure mezuaren hartzailea gizona edo emakumea den. Eta gogoan izan hika pertsona bati hitz egitean erabili behar dela zuzen erabiliko bada. Ez badakigu zer den, gizona ala emakumea, hobea da hika ez aritzea. Zuka da forma egokia.
Adibidea	Neska bati zuzenduta: <i>gogoratu naun ez geninala adostu zer egin.</i> Taldea osoari: <i>Azterketa egin ezazue.</i>

3	Tipologia	Orokortzaileak diren hitzak maskulinitzat hartzea
Azalpena		Euskaraz hainbat hitz orokortzaileak dira, beste batzuek ez dute gizona edo emakumea izendatzen, neutroak baitira; baina, askotan, guztiak gizonak direlakoan erabiltzen dira.
Adibidea		<i>Gure taldeko ikasleek oso jarrera ona dute neskekin.</i>
Zergatia		Androzentrismoa.
Ondorioak		Parekidetasuna galtzea. Emakumeen protagonismoa galtzea. Emakumeak bigarren mailako izaki moduan agertzen dira.
Irtenbidea		Forma jatorretan erabili, beti bi sexuak barneratuz edo dagozkion hitza erabiliz.
Adibidea		<i>Gure taldeko mutilek oso jarrera ona dute neskekin.</i>

4	Tipologia	Generoa adjektiboetan eta izenetan markatzea
Azalpena		Erdararen eraginez, adjektiboetan eta izenetan genero gramatikala jartzen da: maskulinoa zein femenino.
Adibidea		<i>Oso irakasle majoa da/ oso irakasle maja da.</i>
Zergatia		Sexismoa.
Ondorioak		Euskararen neutrotasuna galtzen da.
Irtenbidea		Ahal izanez gero, forma jatorrari eutsi.
Adibidea		<i>Oso irakasle jatorra da.</i>

5	Tipologia	Genero-kutsadura
Azalpena		Izen neutroak pentsamenduan genero batekin identifikatzen dira. Genero gramatikala ez da agertzen baina androzentrismoaren eta asoziazio sexistaren ondorioz, lanbide, kargu edo egoera bakoitza sexu bati edo besteari egokitzen zaio.
Adibidea		✓ <i>Medikua = gizona</i> ✓ <i>Dekanoa = gizona</i>

	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Futbolaria = gizona</i> ✓ <i>Erizaina = emakumea</i> ✓ <i>Garbitzailea = emakumea</i> ✓ <i>Gazteak = mutil gazteak</i>
Zergatia	Androzentrismoa eta sexismoa.
Ondorioak	<p>Parekidetasuna galtzea.</p> <p>Genero estereotipoak sendotzea.</p> <p>Emakumeen presentzia eta protagonismoa galtzea.</p> <p>Emakumeen azpi-identitatea eta gizonen gain-identitatea sustatzea.</p>
Irtenbidea	Emakumea beti presente izan, subjektu garrantzitsua dela kontuan hartu eta pareko tratamendua eman gizon zein emakumeei.
Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Futbolaria: emakume zein gizonentzat erabili.</i> ✓ <i>Erizaina: emakume zein gizonentzat erabili.</i>

6	Tipologia	Maskulino orokortzaile faltsua
Azalpena		Emakume eta gizonetako osaturiko taldea izendatzeko maskulino plurala erabiltzen denean, emakumeak ezkutuan utzi eta ikusezinak egiten ditugu. Edo gizonak erreferenteak direnean, emakumea edo gizona den jakin gabe.
Adibidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Gizonaren eskubideak.</i> ✓ <i>Zuzendari jauna.</i>
Zergatia		Androzentrismoa.
Ondorioak		<ul style="list-style-type: none"> ✓ Emakumeak ostentzea. ✓ Emakumeak baztertzea. ✓ Lanpostu eta roletan kategorizatzea. ✓ Femeninoa gutxiestea, haren balioa murriztea: emakumeei baino ez egozte. <p>Eta ondorioz:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Maskulinoa larregi balioestea. ✓ Femeninoa gutxiestea.
Irtenbidea		✓ Forma bakarreko substantiboak erabili: talde edo kolektiboak izendatzen dituztenek berdin hartzen dituzte emakumeak zein gizonak: <i>pertsonak, ikasleak, irakasleak, langileak, zuzendaria, ekipoa, ...</i>
Adibidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Pertsonen eskubideak.</i> ✓ <i>Zuzendari jauna/andrea.</i>

7	Tipologia	Itzulpenak
Azalpena		Gaztelaniaz perifrasiak erabiltzen dira sexu-bazterketa ekiditeko, baina euskaratzean, gehienetan ez dira behar.

Adibidea	<i>Las personas beneficiarias de la beca... = Beka jaso duten pertsonak ...</i>
Zergatia	Erdararen kalkoa.
Irtenbidea	Euskararen arauak ezagutzea eta errespetatzea.
Adibidea	<i>Beka- jasotzaileak, beka jaso dutenak...</i>

4.2. Lexikoaren elementuak

1	Tipologia	"Gizon"/"gizaki"/"giza" izenen erabilera
Azalpena		Gizon izena emakumeak eta gizonak izendatzeko erabili ohi da. Kontuz!, bakarrik onartu behar da gizonezkoei badagokie. Emakundek dionez <i>gizaki</i> izenak eta <i>giza-</i> aurrizkiak osatutako berbek (<i>gizarte, gizataldea, ...</i>) ez dute <i>gizon</i> hitzak duen konnotaziorik, beraz, biak erabili daitezke. Kontuan hartu behar da iparraldeko tradiziozko erabileran <i>gizaki/emazteki</i> oposizioan erabiltzen dela.
Adibidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Gizona hilkorra da. EZ ERABILI GENERIKO GISA.</i> ✓ <i>Gizonaren garapen psikologikoa. EZ ERABILI GENERIKO GISA.</i> ✓ <i>Gizon, abere eta beste bizidun guztiak (Lardizabal). EZ ERABILI GENERIKO GISA.</i>
Zergatia		Androzentrismoa.
Ondorioak		Emakumeak azpi-balioestea. Gizonak larregi balioestea. Anbiguotasuna.
Irtenbidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Jendea, pertsonak, gizon-emakumeak, izakia, jendarte, ...</i> ✓ <i>Gizon, gizaseme, gizonezko gizonekoentzako soilik erabili.</i>
Adibidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Pertsonak hilkorrak dira.</i> ✓ <i>Gizon-emakumeen garapen psikologikoa.</i> ✓ <i>Jendea, abere eta beste bizidun guztiak.</i> ✓ <i>Unibertsitateko eragileak/komunitatea/taldeak, ...</i>

2	Tipologia	Izena+gizon hitz elkartuetan
Azalpena		Ez da onartuko generiko <i>gisa -gizon</i> atzizkia, gizonak baino ez ditu aipatzen.
Adibidea		<i>Elizgizon, gerragizon, itsasgizon, plazagizon, legegizon, industriagizon, negozio-gizon, mehagizon, ...</i> <i>Itsasgizonen aldarikapena.</i>
Zergatia		Androzentrismoa.
Ondorioak		Emakumeak diskriminatu eta ezkutuan uztea.
Irtenbidea		Izen berriak sortu <i>-ari, gile, le</i> edo beste atzizkien bidez.

Adibidea	<i>Legelari, gerrari, itsas langile, negoziogileak, mehatzari... Itsas langileen aldarrikapenak.</i>
-----------------	--

3	Tipologia	-sa atzikiaren erabilera
Azalpena	Atziki hori daramaten hitz gehienak maileguak izaten dira eta zubereraz soilik erabili izan den atzikia dela esan daiteke. Euskara batuan –sa atzikia ez da beharrezkoa, erabilera mugatu behar da. Testuinguruak sexua argituko du.	
Adibidea	<i>Alkatesa, medikusa, idazlesa, bertsolarisa, alarguntsa ... Euskaltzaindiak hauexek onartu ditu: printzesa, abadesa, jainkosa, kondesa...</i>	
Zergatia	Sexismoa.	
Ondorioak	Tratamendu baztertua.	
Irtenbidea	Sexua zehaztu nahi bada, emakume edo gizon izena erabili daitezke. Baina, kontuz, tratamendu berdina eman! Askotan emakumeekin egiten da soilik: <i>bertsolaria</i> eta <i>emakume bertsolaria</i> , lehenengoa gizoni bakarrik legokiekeen bezala, emakumea denean berariaz adierazi behar da.	
Adibidea	<i>Alkate jauna, alkate andrea, gizon alarguna, emakume alarguna, gizon gaztea, emakume gaztea, ...</i>	

4	Tipologia	Gizonezkoak ekintzaren ardatz eta erreferentziatza hartzea
Azalpena	Gizona ekintza-subjektu eta erreferentzia bakarra izango balitz bezala aurkezten da, emakumea, aldiz, ekintza-objektu edo erreferentzi azpikotzat jotzen da. Emakumeak gizonen mendeko edo bigarren mailako jarduerak egiten agertzen dira eta, inoiz ere, gizonen ondare edo objektuen gisa.	
Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Greziarrek bozka eskubidea zuten</i> ✓ <i>Frantziar iraultzaren ondorioz gizakien eskubideen karta idatzi zen.</i> ✓ <i>Zuzendari jauna (zuzendaria nor den ez dakigunean).</i> ✓ <i>Ikasturtearen aurkezpen-ekitaldian Errektore Jaunak Fakultatearen Dekano Andrea izan zuen lagun.</i> ✓ <i>Irakasleek emazteak izan zituzten lagun.</i> ✓ <i>Bigarren Errepublikan eman zitzaien boto-eskubidea emakumeei.</i> 	
Zergatia	Androzentrismoa.	
Ondorioak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Objektu pasibo edo mendeko gisan agertzea. ✓ Gutxiestea, gutxituak edo beheko mailakotzat jotzea. <p>Eta ondorioz:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Maskulinoa larregi balioestea. ✓ Femeninoa gutxiestea. 	
Irtenbidea	✓ Esaldiaren ordena bestela ematea, hitzak lekuz aldatzea.	

	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Emakume eta gizonak parekide hartzea. ✓ Emakumeen bizitzen egoera eta izaera ezberdinak balioestea, emakumeak berak eta euren mundu sinbolikoak ez daitezela agertu beti maskulinitasunaren azpian, mendean edo modu pasiboan subordinaturik.
Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Unibertsitateko Errektore Jaunak eta Fakultateko Dekano Andreak ikasturte akademikoa aurkeztu zuten elkarrekin.</i> ✓ <i>Irakasleek ezkontideak izan zituzten lagun.</i> ✓ <i>Bigarren Errepublika emakumeek boto-eskubidea lortu zuten.</i>

5	Tipologia	Itxurazko bikoteak
	Azalpena	<p>Sexuaren arabera esanahia aldatzen duten hitzak, gehienetan emakumeen kasuan esanahi kaltegarri edo negatiboak hartzeko. Izen beraren maskulinoa eta femeninoa konparatuz, nabarmenak dira bien arteko aldeak. Parekotasun eza gertatzen da, atzizki berdina izanda baina sexua aldatuta.</p> <p>Hiztegia hartuta "eme" eta "andra" erotik datozen hitzak eta "giza" eta "gizon" erotik datozenak ez dira pareak. Horrela lehenengoetatik konnotazio sexual nabarmeneko hitzak eratorzen dira.</p>
	Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Gizalege (begirunea / emalege (hilekoa)</i> ✓ <i>Gizabakar (norbanakoa) / emabakar (monogamoa)</i> ✓ <i>Gizatxar (gaiztoa / ematxar (prostituta)</i> ✓ <i>Gizontasun / ematasun</i> ✓ <i>Andraketa, emagaldua, emakoitasun...</i> ✓ <i>Gizabide, gizalan, gizatiar...</i>
	Zergatia	Sexismoa.
	Ondorioak	<p>Emakumeen balio eza.</p> <p>Emakumeak mesprezatzea.</p> <p>Mendekotasun harremana.</p>
	Itzenbidea	<p>Ez erabiltzea emakumeak gutxien dituen itxurazko bikoitza eta ez erabiltzea hitz horiek mesprezuz.</p> <p>Emakumeak eta gizonak parekide hartzen dituzten hitzak erabiltzea.</p>
	Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Begirune, jokabide, jokalege...</i> ✓ <i>Norbanakoa, pertsona, norbera, lagun...</i> ✓ <i>Nortasuna, izaera</i> ✓ <i>Jendea</i>

6	Tipologia	Hutsune lexikoak
	Azalpena	Hitz batzuk erro maskulino edo femeninotik sortzen dira eta beste sexuarentzat ez dute baliokiderik.

Adibidea	✓ <i>Andereño, Andratan ibili, Anaitasuna, Anaiarte, Gizatiar, Emaro, Amalur</i>
Zergatia	Sexismoa.
Ondorioak	✓ Maskulinoa larregi balioestea. ✓ Femeninoa gutxiestea.
Irtenbidea	Halakorik ez erabiltzea.

7	Tipologia	Tratamendu desberdina izen-abizenak jartzeko
Azalpena		Abizena baino agertzen ez denean gizona dela uste izaten da, emakumea dela agerrarazteko, berriz, izena eta abizena eman ohi da.
Adibidea		<i>Ibarretxe Lehendakaria.</i> <i>Miren Azkarate Jaurlaritzaren Bozeramailea.</i>
Zergatia		Sexismoa.
Ondorioak		Emakumea ostentzea. Emakumea subordinatzea.
Irtenbidea		Emakume zein gizoni tratamendu bera ematea arlo guztietan. Guztien izen-abizena ematea aholkatzen da, horrela ez baititugu emakumeak ostentzen. Administrazio agirietan, "jaun" eta "andre" ez erabiltzea aholkatzen da, gehienetan forma maskulinoa soilik agertzen baita (<i>zuzendari jauna:.../zuzendaria:...</i>) Bibliografia aipuetan ere, izen eta abizena jartzea gomendagarria da, egilea nor den argi jakiteko. Testuetan emakumeak ere aipatzea.
Adibidea		Alvárez Uria, Amaia (2004). <i>Euskara eta diskriminazio sexuala</i> . In <i>Jakin</i> , 142. zbkia. (47-61 or) García Meseguer, Álvaro. (1996) <i>¿Es sexista la lengua española? Una investigación sobre el género gramatical</i> . Madril: Paidós Ibérica

8	Tipologia	Sexuaren araberako trataera desberdina
Azalpena		Sexu bakoitzari tratamendu desberdina ematen zaio, emakumeak adingabekoak izango balira bezala. Eurekin lotutako gaiak edo gauzak deskalifikatu edo txikiagotu egiten dira .
Adibidea		✓ "Ba!, ba! Emakumeen gauzak" ✓ "Eleberri horretan emakumeen gauzak datoz" ✓ "Egin ezazu negar emakume antzo, gizon antzo defendatzen jakin ez duzunaren aurrean!" ✓ "Ikerketa-taldea hiru gizon eta bi neskez osatuta dago" ✓ "Agirre jaunak eta Ametzaga andereñoak, 2. mailakoak, datorren

	<p><i>astean aurkeztuko dituzte lanak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>"Taldeko andereñoak ekarpenak azaldu ditzakete"</i> ✓ <i>"Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra"</i> ✓ <i>"Etxe honetan to da no"</i> ✓ <i>"Maisua eta andereñoa"</i>
Zergatia	Sexismoa.
Ondorioak	<p>Emakumeen balio eza.</p> <p>Emakumeen mendekotasuna eta dependentzia.</p> <p>Emakumeen estatus soziala edo laborala ezkutatzea.</p>
Irtenbidea	<p>Emakumeei eta gizonen tratamendu bera ematea, emakumeak gizonen mendeko, gutxiagoko edo haien ondare gisa ez agertzea.</p> <p>Emakumeei eta gizonen dagozkien balioak, abileziak, gaitasunak eta abarrak aipatzea.</p> <p>Emakumeena eta gizonena txandakatu, baita jasotako esakuntzetan ere.</p>
Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>"Ikerketa-taldea hiru gizon eta bi emakumez osatuta dago"</i> ✓ <i>"Agirre jaunak eta Ametzaga andreak, 2. mailakoak, datorren astean aurkeztuko dituzte lanak"</i> ✓ <i>"Taldeko andreek ekarpenak azaldu ditzakete"</i> ✓ <i>Irakasle (emakume zein gizonentzat)</i> ✓ <i>Maisu-lana ez da gizon batek egindako lana..." (maisua hitzak emakumea eta gizona estaltzen ditu baina irakaskuntzan erabili izan da gizonentzat soilik)</i>

9	Tipologia	Jauzi semantikoa
Azalpena		Benetako generiko bat bi sexuak ondo baneratzeko dituen esaldi batean erabili ostean, genero femeninoa zehazten da, orduan erakusten da lehengo generikoa maskulinoari baion ez zegokiola.
Adibidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Pertsona guztien eskubideak hartuko dira kontuan: emakumeenak, helduenak, umeenak, etorkinenak, eta abar.</i> ✓ <i>Ikasleak emaztegaiekin joan daitezke.</i>
Zergatia		Androzentrismoa.
Ondorioak		Emakumeak txikiagotzea eta azpiratzea.
Irtenbidea		<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aldaera semantikoak sortzen dituzten estrategia semantikoei eustea. ✓ Emakume eta gizonak kategoriatan berean sartzea. ✓ Benetako izen generiko edo kolektiboak erabiltzea. ✓ Izen abstraktuak erabiltzea. ✓ Bikoizketak. ✓ Maskulinoa eta femeninoak txandakatzea, hierarkiak hausteko. ✓ Izenordainak erabiltzea.
Adibidea		✓ <i>Pertsona guztien eskubideak hartuko dira kontuan: emakumeenak eta</i>

	<p><i>gizonenak, umeenak, gazteenak eta helduenak, etorkinenak eta bertakoenak...</i></p> <p>✓ <i>Ikasleak neska- eta mutil-lagunekin joan daitezke.</i></p>
--	--

10	Tipologia	Iraingarri gerta daitezkeen berbak
	Azalpena	Euskarak baditu erdeinuzko berba batzuk emakumezkoekin bakarrik erabiltzen direnak, <i>mari-</i> aurritziaz eraturakoak adibide.
	Adibidea	<i>Zoranga, mamala, txatxala, urdanga, mari-gizon, mari-zikin, mari-maistra</i>
	Zergatia	Sexismoa.
	Ondorioak	Emakumeen estereotipoak indartzea. Emakumeak gutxiestea.
	Irtenbidea	Horrelako hitzik ez erabiltzea, beste inork erabil ez dezan exijitzea.

11	Tipologia	Ezaugarri desberdinak emakumeentzat eta gizonentzat.
	Azalpena	Egoera berean dauden pertsonen deskripzioak ez datoz bat pertsona emakumea edo gizona direnetan. Emakumeak deskribatzeko estetika erabili ohi da, gizonak deskribatzeko, berriz, adimenari lotutako ezaugarriak erabiltzen dira.
	Adibidea	<p>✓ <i>Emakumeentzat: lirain, eder, polit, panpox,...</i></p> <p>✓ <i>Gizonentzat: indartsu, sendo, azkar, trebe, ...</i></p>
	Zergatia	Sexismoa.
	Ondorioak	Genero-estereotipoak biziberritu.
	Irtenbidea	<p>✓ Ez aurkeztu emakumeak estereotipoak erabiliz, hau da, ez lehenetsi itxura fisikoa, ez irudikatu emakumeak betiko roletan.</p> <p>✓ Pertsonari dagozkion balio, gaitasun eta trebetasunak aipatu, eta ez, ohiko ustez, sexuari dagozkion horiek.</p> <p>✓ Adierazpide bat egokia den ala ez jakiteko bide bat ordezkatu ahal dira emakumeak eta gizonak, hau da, emakumea aipatu den tokian gizona jarri eta alderantziz. Adierazpena arrotza edo arraroa iruditzen bazaigu, seguruenera sexista delako izango da.</p>

12	Tipologia	Simetriarik eza izendapen eta aposizioetan
	Azalpena	<p>Aurrena gertatu ohi da emakumeak izendatzeko sexua eta gizonak izendatzeko egoera soziala erabiltzen denean.</p> <p>Azkena gertatu ohi da jendartearen pertsona batek duen jardunaren ostean emakumea edo gizona eransten denean.</p>
	Adibidea	<p>✓ <i>Beka bi ikasle eta bi andrek eskatu dute.</i></p> <p>✓ <i>Sendagile emakumeak du lanbide-arrakasta lortzeko probabilitate handiagoa.</i></p>


Zergatia	Sexismoa.
Ondorioak	Emakumeak ostentzea edota emakumeen jendarteko edo lanbideko estatusa txikiagotzea.
Irtenbidea	Sexuari ez egin aipamenik, edo emakumeak gizonezkoen pare jartzen direla ziurtatzea.
Adibidea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Beka lau ikaslek eskatu dute (bi gizonek eta bi emakumek).</i> ✓ <i>Sendagileetan emakumeek dute lanbide-arrakasta lortzeko probabilitate handiagoa.</i>

4.3. Irudien elementuak

1	Tipologia	Emakumeak ezkutatzea
Azalpena	Ez dira jendeari buruzko irudietan agertzen, ezta talde mistoetan edo lorpen intelektual eta sozialetan ere ...	
Adibidea		
Zergatia	Androzentrismoa.	
Ondorioak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Objektu pasibo edo mendeko gisa azpiratua. ✓ Gutxituak, baliogabetuak. <p>Eta ondorioz:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Maskulinoa larregi baliogestea. ✓ Femeninoa gutxiestea. 	
Irtenbidea	Emakume eta gizonen irudiak era berean eta ekitatez erabiltzea. Emakumeak informazio-ituri gisa baliatzea.	
Adibidea	 <p>Maria Slodowska, Marie Curie ezkontide-izenez ezagunagoa (1867-1934)</p>	

2	Tipologia	Genero-balioak, -rolak eta -estereotipoak egozteak.
----------	------------------	--

Azalpena	Emakume eta gizonei estereotipo-rolak egozten zaizkie generoaren arabera, horrela espazioak, posibilitateak eta batengandik edo besterengandik espero daitezkeenak ere mugatzen dira.
-----------------	---

Adibidea	 <p><i>Haurrentzako ipuina: "Urrezko kizkurtxo"</i></p> <p><i>Hartz bat handia zen oso, eta kapela zuen buruan, aita zelako. Bestea, ertaina, kofia zerabilen, ama zelako. Eta azkena, txikiena, hartz-kumea zenez kapelatxo batez estaltzen zuen burua</i></p> <p><i>Hartz handiak orro egin zuen: Norbaitek nire esnea edan du! Hartz ertaina marmarka esan zuen: norbaitek nire esnea edan du! Hartz txikiak negar-zotinka zera eta ahopeka esan zuen: nire esnea oso-osorik edan du norbaitek!</i></p>
-----------------	---

Zergatia	Sexismoa.
-----------------	-----------

Ondorioak	<p>Gorrota, mesfidantza, lehia, herra, bekaitza eta halako sentimenduak finkatzea.</p> <p>Menderatu nahia eta boterea ezinbesteko balio gisa ezartzea.</p> <p>Horrela ere, nonbait, mutikoak gerrako eta neskak "gerrariak" liluratzeko hezten ditugu.</p>
------------------	--

Irtenbidea	<p>Genero-balioak, rolak, estereotipoak aldatzea; emakumeak erabakiak hartzen eta bere gain jarduten aurkeztu behar dira, eta ez soilik ama, emazte edo etxeko andre gisa; hartara, emakumeak arlo guztietan agertu behar dira: zientzian, kirolean, politikan, ekonomian...</p> <p>Parekidetasun-printzipioei eusten zaiela bermatzea.</p>
-------------------	---

Adibidea	 <p>UPV/EHUren kirol webguneko irudiak</p>
-----------------	--



3 Tipologia	Genero-estereotipoa erabiltzea.
--------------------	--


Azalpena	Emakumeek eta gizonek, zeinek bere aldetik, omen dituzten ezaugarriak estereotipo eta aurreiritzietan biltzea eta erabiltzea.
-----------------	---


Adibidea	
Zergatia	Sexismoa.
Ondorioak	<p>Estereotipoak oinarri dituen sistema sozial bat indartzea: irudi onak eta txarrak, irabazleak eta galtzaileak, ausartak eta koldarrak, ederrak eta itsusiak, indartsuak eta ahulak....</p> <p>Maskulinoari eta femeninoari atxikitako ezaugarriak bateraezinak direla sinestaraztea.</p>
Irtenbidea	<p>Emakumeak arlo guztietan aurkeztea: lan-munduan, arlo akademikoan, elkarte do talde mota guztietan ...</p> <p>Emakumeak eta gizonak sexuagatik itxita izan zituzten eremuetan aurkeztea.</p> <p>Emakumearen irudi umilgarriak, gutxigarriak edo iraingarriak ez erabiltzea.</p>
Adibidea	 <p>Frida Kahlo (1907-1954)</p>

4 Tipologia	Emakumeen gorputza erabiltzea.
Azalpena	Zerbitzuarekin edo produktuarekin zerikusirik izan barik, emakume-gorputza erabiltzea apaingarri edo erakargarri gisa.
Adibidea	
Zergatia	Sexismoa.
Ondorioak	<p>Emakumeak menderatzea.</p> <p>Emakumeak produktu gisa erabiltzea.</p> <p>Emakumeak adin-txikikoen edo ondare baten pare erabiltzea.</p>
Irtenbidea	Pertsonen gorputzak erabiltzea bakar-bakarrik adierazi nahi denari

	informaziorik gehitzen edo handitzen dioten kasuetan.
Adibidea	

5	Tipología	Emakumeak iraintzea.
Azalpena	Emakumeak eta euren jarduerak iseka, irain edo parodia gisa agertzea.	
Adibidea		
Zergatia	Sexismoa.	
Ondorioak	Emakumea mesprezatzea. Etxeko kontuak baliogabetzea edo gutxiestea. Horrelako zereginetan diharduten emakumeen auto-estimu eskastu egiten da.	
Irtenbidea	Etxeko kontuak balioestea, etxea bera elkarrekin bizitzeko, norbera hezteko eta bizia garatzeko berariazko gunea baita.	
Adibidea		SARE 2007ko Kongresuaren irudia: Maskulinitasuna eta eguneroko bizimodua, Emakunde

6	Tipología	Emakumea azpiratzea.
Azalpena	Emakumeak gizonen objektu gisa agertzea.	
Adibidea		
Zergatia	Sexismoa.	
Ondorioak	Emakumeak azpiratzea.	

	Zuzeneko edo zeharkako bortxakeria.
Irtenbidea	Emakumeak ikusgai egin begirunez, berdintasunez eta bidezketasunez.
Adibidea	 <p>UPV/EHUko Kimika Analitiko Sailaren ikerlari-taldea.</p>

BIBLIOGRAFIA

Alvárez Uria, Amaia (2007), "Zergatik erabili behar dugu hizkera ez-sexista? Horrekin emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortuko al dugu?" in *Hik Hasi*, 116. zbkia (32-34)

_____ (2004), "Euskara eta diskriminazio sexuala" in *Jakin*, 142. zbkia (47-61)

Arana, Anuntxi (1993), "Sexismoa sinbolo eta arketipoetan" in J. Arizabalaga eta A. Carbonell (bil.) *Emakumea: sexua ala generoa?*. Bilbo: UEU eta Emakunde (25-47)

Azkarate, Miren (1998), "Euskara estandarra eta hizkuntza-seximoda" in *Jakin*, 11-12. zbkia, (91-98)

_____ (1993) "Hizkuntzalaritza arauemailea. Euskararen bidezko sexismoa." in Nazioarteko Kongresua. Ikerkuntza, Irakaskuntza eta Feminismoa. *Sexismoa, lengoaia bide dela. Hizkuntzaren baitako eta kanpoko elementuak*. Donostia eta Gasteiz

_____ (1993), "Emakumea eta euskara" in J. Arizabalaga eta A. Carbonell (bil.); *Emakumea: sexua ala generoa?*. Bilbo: UEU eta Emakunde. (69-78)

Cazés, Daniel (2000), *La perspectiva de género*. México: Conapo.

García Meseguer, Álvaro (1996), *¿Es sexista la lengua española? Una investigación sobre el género gramatical*. Madrid: Ed. Paidós Ibérica

_____ (2001), *¿Es sexista la lengua española?* Panacea. Bol. 2, 3. zbkia.

Ekin Emakumeak Elkartea (2001), *Hizkuntza sexistaren ikuspegi ezberdinak*. Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak. Leizta

Emakunde aldizkaria (2003), "Las mujeres y el lenguaje" 52. zbkia.

Juanena, Agurtzane (1991), "Hizkuntz sexismoa eta euskara" in *Jakin*, 65. zbkia. (97-112)

Moreno, Montserrat (coord.) (1992), *Del silencio a la palabra. Coeducación y reforma educativa*. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, Instituto de la Mujer.

_____ (1993), *Cómo se enseña a ser niña: El sexismo en la escuela*, Barcelona: Icaria.

Muruaga, Begoña (1992), "Erabilpenak diskriminatzen du, eta ez hizkuntzak" in *Egin* (92-12-2)

Portugaleteko Udala (2003), *Berdintasunaren aldeko eskuliburua. Udalaren hizkuntza administratiboaren estilo-liburuxka*.

INTERNETEN DAUDEN MATERIALAK

www.emakunde.es

Rincón, Ana. (koord.) (2000) *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Gasteiz: Emakunde.

Rincón, Ana. (koord.) (1997): *Zertaz dihardu Begirak publizitateko sexismoaz diharduenean?*. Gasteiz: Emakunde

"Euskara sexista al da?" (kartela)

www.erabili.com: Álvarez Uria, Amaia (2004) "Euskara sexista al da?"

www.ivap.com (HAEE-IVAP: Administrazioa Euskaraz aldizkaria)

"Hizkera sexista", HAEE-IVAP: Administrazioa Euskaraz aldizkaria

"Hizkera sexista baztertu", HAEE-IVAP: Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Muruaga, Begoña (1993) "-sa atzikia eta hitz elkarketa",

www.sustatu.com: Muruaga, Begoña (2003) "Euskara sexista ote?"

www.topagunea.org/jardunaldiak/Aisia%20euskaraz%20bizi!/Ezsexista.html

Medrano, Bea (2006), "Euskararen erabilera ez-sexista astialdian" in *Aisia Euskaraz bizi Jardunaldietan*. Durango